



Harvard Unibertsitateko doktore Pedro Nueno eta SPRIko zuzendari nagusi Mauri Lazkano, atzo, E-Business kongresuaren hasieran. IAN PÉREZ / SAINZ / ARIKAZA / GETXO

Berrikuntzak errentagarri izan behar duela ohartarazi dute adituek, Bilbon

Oinarri teknologikoko enpresak sortzeko giroa falta du Euskal Herriak, atzerriko adituen ustez

IBAN OCIO
Bilbo

Berrikuntza errentagarria. Hizpi-de mardula dute Bilboko Euskalduna Jauregian. Martxan dago E-Business kongresua eta, bi egunez, negozioak eta punta-puntako teknologiak ganoraz uztartzeko

moduez jardungo dute nazioarteko hainbat adituk. Atzo, jada, hitzaldia eman zuten Larry Keeleyk eta Pedro Nuenok —Doblin enpresako presidentea eta Harvard Unibertsitateko doktorea, hurrenez hurren—. Berrikuntzaren bidez lehiakorrago izateko premia azpimarratu zuten biet.

Mauri Lazkanok berdin. Kongresua antolatuta duen SPRI euskal erakunde publikoko zuzendari nagusia da eta oso pozik dago urteotako ibilbidearekin: «Enpresa estratejiaren alorrean ikur bihurtu gara urteen joanean». Topagune

an munduko aditu entzutetsuek parte hartzen dutela eta euskal enpresentzat ere erakusleho paregabea dela dio. Baina beren eguneroko lanaren berri eman baiden gehiago egin dezakete enpresek. Esperientziak trukatu eta elkarrengandik ikasi.

Correos, Spanair, Ibermatica eta Genetrix enpresako buruak aritu ziren atzo kongresuan. Oihartzun handieneko hitzaldia Nueno doktorearena izan zen, ordea. Oinarri teknologikoko enpresak sortzeko baldintzak aztertuta zuten. «Mikroklima» berezia behar dute: «Arris-

ku kapitalean inbertitzeko prest dauden eragileak, unibertsitate bikainak eta I+G+B zentro ugari ondoan». Administrazioak, gainera, «pizgarriak» eskaini beharko dizkie halako enpresei, iraugo badute. Fiskalitatea aipatu zuen Nuenok laguntza tresna moduan.

BERRITZETAKO AUKERA GUTXI. Euskal Herrian baldintza horiek geratzen ez direla eta, beraz, oinarri teknologikoko enpresa gutxi daudela azpimarratu zuen Harvard Unibertsitateko doktoreak. Genetrix orna da teknologiaren eta berrikuntza-

■ Gaurko hitzaldiak

Bazkalorduan bukatuko da E-Business kongresua, baina hitzaldirik eta aditirik ez da falta gaurko egitarauan.

■ **09:30.** Mahai-ingurua egingo dute Epsilon Euskadiko, Elhuyar Fundazioak, Ofilineko eta MyStrandseko buruek.

■ **11:00.** Bi mintegi daude ordu horietan: marketinari eta salmentei buruz arituko dira Valores & Marketing enpresako presidente Ramon Guardia eta Allegro 234ko zuzendari nagusi Cristian Saracco, alde batetik; negozio ereduaz jardungo dute Garaia S. Coopeko zuzendari Unai Ibarzabalek eta Nokia-ko arduradun Ignazio Riesgok, beste aldetik.

■ **12:15.** Beste bi mintegi: BBK, Dynakn, Barcelo eta Kalkuk parte hartuko dute.

■ **13:30.** Hitzaldia emango du Design Continuum enpresako buru Harry Westek. Aditu handia da berrikuntzan.

«Enpresa estratejiaren alorrean ikur bihurtu da E-Business kongresua urteen joanean»

MAURI LAZKANO
SPRIKO ZUZENDARI NAGUSIA

«Sortuko badira, enpresa teknologikoei ondoan izan behar dituzte unibertsitate onak eta I+G+B zentroak»

PEDRO NUENO
HARVARD UNIBERTSITATEKO DOKTOREA

ren bidea urratzen ari den gutxi horietako bat. Gehiago badaudela zehaztu zuen I. azkanok.

Bai SPRIko buruak bai Nuenok berrikuntza indartsuago bultzatzeari ezinbestekoa iritzi zioten, nolabehere. *Wall Street Journal* egunkariak antolatzen duen berrikuntza lehiaketako epaimahatan dago Nueno, eta iaz irabazi zuen asmazioz gogoratu zen: Diabetikoek intsulina arnasaren bidez hartzeko gailua. Laster egongo da merkatuan. «Berrikuntzak, arrakasta izango badu, merkatura heldu behar duelako».

LARRY KEELEY Berrikuntza errentagarrian aditua

«Oso erraza da berrikuntza zer den esatea, baina oso zaila da berritzea»

I. O.
Bilbo

Munduko aditu handiena da berrikuntza errentagarriaren alorrean, *Business Week* aldizkariaren arabera. Hango eta hemengo gobernuak laguntza eske joaten zaizkio Larry Keeleyri (Windsor, Kanada, 1956). Doblin enpresako buruak azaldu du «asmatzea baino arriskutsuagoa» dela berritzea.

Berrikuntza errentagarri izateko giltzarriak ba al dago?

Berrikuntzak benetan berria den zer edo zer ekarri behar du, errentagarri izango bada. Bere garaiko izan behar du, gainera. Ez lehena-

gokoa ez etorkizuneko. Eta erabiltzaileek erosteko modukoa. Oso erraza da berrikuntza zer den deskribatzea, baina oso zaila da berritzea. Alferrik da zerbaitek asmatzea, inork erabiliko ez bada. Bestela ere, asmatzea baino arriskutsuagoa da berritzea — beti diru arriskuei buruz ari garela —.

Berritzeak nolakoak dira?

Zenbat eta zorrago eta zelebreago, pertsona batek berritzea izateko aukera gehiago zeuzkala uste zuten askok gaurdaino. Usteak erdi ustel. Profesional arrunta da berritzea duena, eta enpresek profesional arruntak hartu behar dituzte

berritzeko. Ez matematikari zoroak edota antzekoak, emeki-emeki berritzea hain arriskutsua izango ez bada, behintzat.

Zain da munduko herriak berritzea? Irlanda, Italia, Japonia... asko daude, eta Ameriketako Estatu Batuek (AEB) ez daude berritzea lortzen artean. Badute abantaila bat, ordea. Dirua. Harvardek, esaterako, Erresuma Batuko unibertsitate guztiek bezainbeste gasta dezake ikerkuntzan, garapenean eta berrikuntzan. AEBetan beste bat da arazoa. Herrialde guztietako gobernuak traba dira berritzea lortzeko. Bushen gobernuak are traba



Doblin enpresako buru Larry Keeley. IAN PÉREZ / SAINZ / ARIKAZA / GETXO

handiagoa. Hutsaren hurrengo laguntzak ematen ditu.

Euskal Administrazioaren lana goraipatu duzu zure hitzaldian, dena den.

Berrikuntzarekin kezkatuta daude eta adorea izan dute hasieran zalantza beteta zeuden proiektuak bultzatzeko: Guggenheim museoa, adibidez. Orain hiri guztiek nahi dute eduki arkitekto os-

petsu batek diseinatutako eraikin polit bat. Bilbok badauka. Berritzea izan da alor horretan.

Hirik zer behar dute berritzea izateko?

Ehun urtetik behin erre. Honda mendia sufritu. Chicagok sute itzela jasan zuen aspaldi eta agintariak berrikuntzari orduantxe heldu zioten. Atzera hiria eraiki behar izan zuten, hain zuzen.